

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Soziolinguistikaren eremu semantikoa eratzen duten oinarriko terminoen esanahia ezagutu, eta ezagutza hori hizkuntza-errealitate jakinen interpretazioan aplikatu.	<p>1.1 Kontzeptu soziolinguistikoak eta haien definizioak ezagutzen ditu.</p> <p>1.2 Testuetako hutsuneak betetzeko, emaniko soziolinguistikako kontzeptuetatik egokiak hautatzen ditu.</p>
2. Fenomeno baten konponbide proposamenak eta horien kausa posibleak emanik, erlazio semantikoa dutenak hautatu.	<p>2.1 Esplikazio-egitura duen testuan identifikatzen ditu arazoa, arazoaren kausak eta arazoarentzako konponbideak.</p> <p>2.2 Emaniko kausa eta ondorioekin eskema grafikoa osatzen du.</p>
3. Emandako euskarrietatik finkatutako komunikazio-asmoaren arabera informazioa hautatu eta adierazi, dagokien egituraren arabera antolatuz.	<p>3.1 Emaniko testuen komunikazio-asmoa hautatzen du eskainitako aukeretatik.</p> <p>3.2 Hautua justifikatzeko, emanikoetatik arrazoi eta adibide egokiak hautatzen ditu.</p> <p>3.3 Komunikazio-asmoa eta haren isla den eskema grafikoa erlazionatzen ditu.</p> <p>3.4 Emandako testuetatik zehaztutako komunikazio-asmo bakoitzerako informazio egokia hautatzen du.</p> <p>3.5 Emandako testuetatik hautatutako informazioa egoki adierazten du eskema grafikoan.</p>
4. Elkarlanean ikerketa-plana egin eta ikerketa gauzatu, norberaren egitekoak arduraz eta eraginkortasunez betez.	<p>4.1 Ikerketaren urrats bakoitzean taldean hartu beharreko erabakietan eraginkortasunez parte hartzen du: bere ideiak eta sentimenduak askatasunez adieraziz, besteenak errespetuz entzunez eta lanari eta gaiari lotuz.</p> <p>4.2 Ikerketa burutzeko bere zereginak arduraz betetzen ditu, laguntza behar izan duenean eskatuz eta behar izan duenari eskainiz.</p> <p>4.3 Elkarlanerako hartutako konpromisoak betetzen ditu eta kideei haienak betetzen laguntzen die.</p>
zuzentasunez adierazteko landutako baliabideak (hizkuntzakoak zein grafikoak) autonomiaz aplikatu, emandako testuetan nahiz norberak	<p>5.1 Landutako kalko okerren ondorio diren akatsak dituzten esaldiak eta horien baliokide zuzenak emanik, esaldi zuzenak hautatzen ditu.</p> <p>5.2 Landutako kalko okerretatik eratorritako akatsak dituzten esaldien baliokide zuzenak idazten ditu.</p>
6. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>6.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</p> <p>6.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>